

22. FITXA BIZKAIA – 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2024ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Bizkaiko udalerritako udalak eta haien udal erakunde autonomoak, baldin eta eskabidearen datan indarrean dagoen biztanleen azken udal erroldaren arabera, 6.000 biztanle baino gutxiago badituzte.

Sarbide-esteka: <https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiko 44/2024 FORU DEKRETUA, apirilaren 25ekoa. Honen bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarriak eta deialdia onartzen dira, 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2024ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 350.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/27 (13:30ean)

Laburpena

Deialdi honen xedea 6.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalerriek 2024ko ekitaldian kultur jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Arlo hauetako kultura-sustapen eta zabalkundearekin lotura zuzena duten kultur jarduerak **jaso ahal dute dirulaguntza:**

- Folklorea.
- Arte eszenikoak: musika, dantza eta antzerkia.
- Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.
- Literatur sustapena.

Aplikazio-eremutik **kanpo** geratzen dira honako hauek:

- Ikasketa-bidaiak, txangoak, eta kulturaren sustapenari eta zabalkundeari zuzenean ez dagozkion bidaiak eta bisitaldiak.

- b) Nekazaritza eta artisautza azokak eta sukaldaritza txapelketak eta jarduerak.
- c) Aisialdi, astialdi eta atsedenaldirako jarduerak (besteak beste, udako kanpamentuetako egonaldiak, umeen Gabonetako parkeetarako bisitak, ludotekak, etab.), kirol jarduerak eta gizarte eta osasun arlokoak.
- d) Udalerriko turismoa sustatzeko jarduerak.
- e) Berariaz haurrentzat eta adinekoentzat antolatutako jarduerak.
- f) Disko, liburu, dvd edo antzekoen ekoizpena edo edizioa.
- g) Euskara sustatzeko aldizkariak.
- h) Kultura-ondarearekin -materiala eta inmateriala- lotutako proiektuak eta jarduerak.
- i) Araztu ondoren, gastuen aurrekontua 2.400 €-tik beherakoa duten proiektuak.
- j) Sexuaren arabera diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak.
- k) Aipatutako esku-hartze eremuen barruan sartzen ez diren jarduerak guztiak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diru-laguntzaren eskaera eragin duten jarduerak 2024 ekitaldian egin beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa jardueraren aurrekontu osoaren % 70 izango da, gehienez, aurrekontua behin aztertu eta dagozkien doikuntzak egin ostean; eta inoiz ez 24.000 eurotik gorakoa.